



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/10/25

Aldundiak "swapak" erabilten jarraituko dau, interes tasen gorabeheratan "arriskuak murrizteko"

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantza foru diputatuak gaur Gerediagan, Bizkaiko Batzar Nagusiek euren hileroko kontroleko osokoa egin daben lekuan, jakinarazo dauenez, Aldundiak "swap" moetak estaldura kontratuak erabilten jarraituko dau. Finantza arloko produktu horretan interes finko tasa bat adosten da, interes aldakorreko mailegetarako.

Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak produktu horreen gainean galdetu deutso Aldundiari, Foru Aldundiak "111 milioi euro" "xahutu dituala" adierazoz, finantza arloko produktu horreek kontratau ditualako bere esku dagozan soziedade birako -Interbiak eta Azpiegiturak-, 2006an, Bizkaian hainbat azpiegitura obra finantzetako zenbait kutxagaz edo banku erakundegaz kontratuak itxi ziranetik. Neskutz Rodríguez talde horretako bozeroaleak, "sortutako gain-kostuaren" eragina murrizteko neurriren bat hartuko ete dan galdetu deutso Iruarrizagari.

Zehatzago esanez, Rodríguezek azaldu dau Aldundiak 29 urtetan itzultzeko "438 milioi euroko" mailegua eskatu eutsala BEIri Interbiak soziedadearentzat. Geroago, Foru erakundeak "swap" kontratu bat sinatzea onetsi eban, tasea finkoa izateko. Hasiera batean holango finantza produktuak gauzen prezioaren gorabeherak saltzailearengan eta eroslearengan sortzen ebazan zalantzak murrizteko sortu ziran arren, gaur egun "espekulazino hutserako sistema moduan erabilten dira". "Ez al da posible swap horreek baliobakotzea eta ohiko tasa finko bat kontratetea?", galdetu deutso Rodríguezek.

Iruarrizagak adierazo dauenez, garai haretan, Aldundiak produktu hori kontratetea erabagi eban, tasa aldakorra finko bilakatzeko eta holan, epe luzerako antolatu zan "mila milioiko" finantzaketa plan baten "segurtasuna handitzeko", 29 urteko mugaeguna eukien maileguak ziralako. Diputatuak kritikau egin dau Podemosek orain -2017an- maileguen egoerea alderatzea, eta zorra ordaintzea amaitu arte itxaroteko eskatu deutso, produktu horreen balorazinoa egin ahal izateko. Eragiketea "arriskuak murrizteko" egin zan. Aldaketeagaz, Aldundiak, Inbertsinoen Banku Europarrak (BEI) hasieran emon eban "%4,759ko" tasea baino tasa finko bajuagoa, "%4,69koa", lortu eban, Iruarrizagak azpimarratu dauenez.

Diputatuak esan dauenez penagarria da orain Podemosek mailegua tasa aldakorrera pasetea eskatzea, horrek Aldundiak "merkaduagaz espekulau egiten dauela" erakutsiko leukelako. Aldundiak, "BEI berak emon ebana baino interes tasa merkeagoa" ezarri eban, "errazoizko" interes tasan, orain 10 urte. Gaur egun, tasa hori finko bilakatzea "125 milioi euro inguru kostauko litzateke jeitsi gura dan puntu bakotxeko, merkaduan horretarako finantzaketea lortzen bada", esan dau.

EKINTZAILTZA PROIEKTUAK, FRANTZIAKO TOURRA ETA ENERGIA KONTRATUA

Beste alde batetik, osokoak beste gai batzuk be landu ditu. Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapeneko diputatuak Bizkaiko mintegietatik (BICak, Beaz, Unibersidadeak...)



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

aurton “112” proiektuk urten dabela esan dau. Proiektu horreek, “570 lanpostu” sortzen ari diran ekintzailetzarako foru programatan sartzen dira.

PPk eskatu dauen moduan Munduko txirrindularitza txapelketea Bizkaira ekarteko aukereari jagokonez, Pradalesek azpimarratu dau Aldundiaren esfortzuak Frantziako tourraren etapa bat jasotean zentretan dirala. Horretarako, “beste pausu” bat moduan ikusten dau 2018ko Espainiako Txirrindularitza Itzuliaren etapa bat Bizkaian urten eta bertan amaitzea. Getxoko portuko terminalean abiauko da eta “Bizkaiko begiralekuko” tontorrean (Oiz mendian) bukatuko da.

Isabel Sánchez Roblesek, bere aldetik, gizarte zerbitzuen maparen hedapenagaz erlazionautako hainbat galderari erantzun deutse. EH Bilduk Bizkaia arlo horretan “Arabaren eta Gipuzkoaren azpian dagola” gogorarazo deutso. Diputatuak adierazo dauenez, administrazio bakoitxak lurraldeka dituan gizarte zerbitzuen hedapena eta kopurua jasoten dituan mapa hori “teorikoa” da, baina bere proiektzioak “orientazio” moduan balioko dabe zerbitzuen eskintzea banatzeko. Gizarte Ekintzako diputatuak “estaldura gitxien dagon lekuetan plazak zabalduko dirala” bermatu dau.

Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak bere aldetik baieztu dauenez, energia elektrikoaren hornidurarako esparru akordioak, bat egin daben 62 erakundeei emongo deutse zerbitzua, eta horreen artean Bizkaiko Foru Aldundia bera, 38 Udal, 9 mankomunidade eta Aldundiaren esku dagozan 14 erakunde dagoz. 2018an sartuko da indarrean, eta energiaren horniduran ingurumenaren aldagaia kontuan hartzeko aukerea emongo dau. Podemos Bizkaiak esan dau penagarria dala kontratu hori “lotetan” ez banatzea, “kooperatiba txikiak” be sartu ahal daitezkan. “Zoritxarrez, uste dot Iberdrolak irabaziko dauela”, aurreratu dau Josean Elgezabalek.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/10/2017

La Diputación seguirá utilizando los "swaps" como forma de "minimizar los riesgos" en la oscilación de los tipos de interés

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha informado hoy en Gerediaga, en donde las Juntas Generales han celebrado su pleno de control mensual, que la Diputación seguirá utilizando contratos de cobertura tipo “swaps”, un producto financiero en el que se pacta un tipo de interés fijo para préstamos con intereses variables.

El grupo juntero Podemos Bizkaia ha preguntado a la Diputación por estos productos en la sesión plenaria, cuestionando que la institución foral “ha dilapidado” un total de “111 millones de euros” por la contratación de estos productos financieros para dos sociedades forales - Interbiak y Azpiegiturak- desde que se cerraron, en 2006, sendos contratos con diversas cajas o entidades bancarias para financiar varias obras de infraestructuras en Bizkaia. La portavoz de esta formación, Neskutz Rodríguez, ha preguntado a Iruarrizaga si la Diputación va a tomar alguna medida para disminuir el impacto que supone el “sobrecoste generado”.

En concreto, Rodríguez ha explicado que la Diputación pidió para Interbiak un crédito al BEI, a devolver en 29 años, por importe de “438 millones de euros”. Más tarde, la institución foral aprobó la firma de un contrato “swap” para dejar el tipo fijo. Si bien inicialmente este tipo de productos financieros fueron concebidos para eliminar la incertidumbre que generaba la fluctuación del precio de las cosas, tanto en el vendedor como en el comprador, hoy en día “se utilizan como sistema de especulación pura y dura”. “ ¿No es posible cancelar los swaps y contratar un tipo fijo normal?”, le ha preguntado Rodríguez.

Iruarrizaga ha señalado que, en aquel momento, la Diputación decidió contratar este producto para convertir un tipo variable en fijo y así “aumentar la seguridad” de un plan financiero de "mil millones" que se había confeccionado a largo plazo, ya que eran préstamos con un vencimiento a 29 años. El diputado ha criticado que Podemos compare ahora -en 2017- la situación de los préstamos y le ha pedido que espere a que termine de pagarse la deuda para hacer una valoración de dichos productos. La operación se realizó para "minimizar riesgos". La Diputación consiguió con el cambio un interés fijo del “4,69%”, inferior al que había concedido inicialmente el Banco Europeo de Inversiones (BEI) que se fijó en el “4,759%”, ha destacado Iruarrizaga.

El diputado ha lamentado que Podemos pida ahora que se pase el préstamo a variable, lo que significaría que la Diputación “especula con el mercado”. La Diputación fijó el tipo de interés “más barato de lo que dio el propio BEI”, a un tipo de interés “razonable” hace 10 años. Hoy en día reconvertir ese tipo a fijo supondría “del orden de 125 millones de euros por cada punto que se quiera bajar, si es que se consigue la financiación pertinente en el mercado”, ha dicho.

PROYECTOS DE EMPRENDIMIENTO, TOUR DE FRANCIA Y CONTRATO ENERGÉTICO



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por otro lado, el pleno ha abordado otra serie asuntos. El diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha cifrado en “112” los proyectos que han salido este año de las distintas incubadoras vizcaínas (BICs, Beaz, Universidades...) y que se integran en programas forales de emprendimiento, que están generando “570 puestos de trabajo”.

En relación a la posibilidad de traer a Bizkaia el Mundial de ciclismo como le pedía el PP, Pradales ha insistido en que los esfuerzos de la Diputación se centran en acoger una etapa del Tour de Francia. Para ello, ve como “otro paso” la confirmación de que Bizkaia tenga una etapa de la Vuelta Ciclista a España de 2018 con salida y llegada en Bizkaia. Partirá de la terminal del puerto de Getxo y llegará a la cima del “balcón de Bizkaia” (el monte Oiz).

Por su parte, Isabel Sánchez Robles ha respondido a varias preguntas relacionadas con el despliegue del mapa de servicios sociales. EH Bildu le ha recordado que Bizkaia “está por debajo de Alava y Gipuzkoa” en este terreno. La diputada ha señalado que dicho mapa, que recoge el despliegue y el número de los servicios sociales de cada administración por territorio, es “teórico”, aunque las proyecciones servirán “de orientación” para distribuir la oferta de servicios. La diputada de Acción Social ha garantizado que “se abrirán plazas allá donde menos cobertura haya”.

Por su parte, la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha confirmado que el acuerdo marco para suministro de energía eléctrica dará servicio a las 62 entidades que se han adherido, entre las que se incluyen la propia Diputación Foral de Bizkaia, 38 ayuntamientos, 9 mancomunidades y 14 entidades forales. Entrará en vigor en el año 2018 y supondrá incorporar al suministro energético la variable medioambiental. Podemos Bizkaia ha lamentado que este contrato no se parta “por lotes” para que puedan entrar “pequeñas cooperativas”. “Me temo que ganará Iberdrola”, ha vaticinado Josean Elgezabal.